#GerrarikEz

# Hamazazpi

2022ko urria



## ZIGOITIKO IKASTETXEETAN HOBEKUNTZAK

INGURUGIROA

**Zigoitiak 'Hiri Ortu Ekologikoak' sustatzen ditu**

KULTURA

**Mairu Abesbatza afronta un año ilusionante**

Nº ZB 27

ZIGOITIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

# La Eskola estrena carpa

**Al objeto de seguir dando pasos en la mejora de las instalaciones de la Eskola, el Ayuntamiento ha instalado una carpa en una de las zonas de juego del patio del colegio público.**



La instalación de esta cubierta, de 25 metros de longitud por 7 metros de anchura, con una altura al alero de 3 metros y una altura a cumbrera de 4 metros, permitirá al alumnado del centro disfrutar tanto del recreo como de muchas de sus actividades escolares (educación física y otros eventos sociales y culturales) sin preocuparse por las condiciones climatológicas. Se han destinado 37.450 euros para acometer esta actuación, de los que 29.365 euros han sido subvencionados por el plan de Educación – Udalaguntza 2021 de Gobierno Vasco.





## *Haurreskola Gorbeiako jolastokiko lurzorua eraberritu da*

*Udalak udan zehar Haurreskolako jolastokian mantentze, egokitze eta berritze lanak egin ditu, umetxoei kalitatezko joko-gune seguruak eskaintzeko helburuarekin, azpiegiturak egoera onean mantenduz eta hobetuz.*
*Inpaktua arintzen duen eta erorikoen ondoriozko lesio larriak saihesten laguntzen duen lurzorua ipini da, adibidez. Kolore eta forma desberdineko 140 metro karratuko azalera betetzen du, araudiaren araberako lodiera duen hormigoiaren gainean, eta inoiz ez 4 zm-tik beherako lodierakoa. Tontortxoak ere ipini dira. Adin txikikoek trebetasuna eta bizkortasuna irabazten duten bitartean ondo pasatzen laguntzen duten jokoak dituzte, txirristak edota oreka lantzeko hondar-zonalde berriak bezala, haurreskolako langileek proposatutako lekuetan. Eskolatik irtetzeko eta ateratzeko sarrera ere garbitu, egokitu eta hornitu da.*
*Egindako inbertsioa 18.742,90 eurokoa izan da, Arabako Foru Aldundiaren Garabide diru-laguntza deialditik 8.996,59 euro eskuratuz.*




# Zigoitia speaks english

Orain dela 30 urte bere ama hasi zen ingeles klaseak ematen. Erretirora iristean hartu zion txanda. Hiru urte etxean klaseak eskaintzen egon ondoren, ingeleseko akademia proiektuak irailaren 19an ireki ditu ateak. Gopegin klaseak ematen jarraituko du, baina horretara bereziki egokitutako 72 metro karratuko egoitza berri batetan. Zonaldeko zerbitzu eskaintzari gaineratzen zaion beste baliabide bat, gaur egun hezkuntza munduan ia ezinbestekoa dena. Ilusioz gainezka dago Lucía García de Cortazar, jabea.
“Aurrera pausua ematera ausartu naiz. Gero eta ume gehiagok ematen dute izena. Ingelesa era ludikoan irakasten dut, inguruan ahoz-aho zabaldu da era dibertigarrian egiten dudala eta gero eta ikasle gehiago datoz. Ipuinak irakurtzen ditugu, abesten dugu, eskulanak egiten ditugu, sukaldatzen dugu ere… Umeak oso pozik daude, gustora”, aipatzen du irakasleak.
Hiru eta hamar urte bitarteko umeak dira ikaslegoaren gehiengoa, baina 16 urte arteko gaztetxoak ere badaude klase partikularrak jasotzen, First Certificate prestatzen… Zigoitiatik, Murgiatik eta Gasteiztik datoz gehienak. “Gero eta eskaera handiagoa dago gurasoen aldetik, nabaria da. Oraindik hitz egiten ez duten haurrei klaseak emateko eskaerak ditut, oso gaztetatik soinuak barneratzen hasteko. Bestetik, klase partikularrak ematen ditut ere, laguntza behar edota azterketa bat prestatzen dutenei zuzenduak. Gaur egungo munduan, ingelesa menperatzea garrantzitsua da, etorkizun profesionalari begira lagungarria baita”, adierazten du Lucíak.
Akademia Gopegin kokatuta dago, Urisolo Kalean, lehen eraikuntzan. Harremanetarako zenbakia 692249541 da.

# Celebración del hermanamiento con La Vall d’en Bas (Girona)

La localidad de La Vall d’en Bass acogió el fin de semana del 17 y 18 de septiembre los actos oficiales del hermanamiento con Zigoitia, firmado en 2019. El municipio de La Garrotxa brindó una acogida maravillosa a la delegación del Ayuntamiento y a las vecinas y vecinos de Zigoitia desplazados al evento. La expedición alavesa estuvo también formada por un grupo de dantzaris y músicos y una muestra de herri kirolak, que aportaron una bonita exhibición de cultura vasca en los festejos. El Ayuntamiento de Zigoitia quiere agradecer públicamente la excelente disposición y trabajo de todas las personas comprometidas con el excelente desarrollo del acto. El hermanamiento traerá consigo el estrechamiento de la relación entre ambas comunidades. Acciones en favor de los derechos fundamentales, la democracia y el derecho a decidir, la difusión de las culturas y lenguas propias, los intercambios de ámbito social, la organización de mercados, ferias o exposiciones, la promoción turística, las actividades deportivas o el compromiso a trabajar en favor de la igualdad de género son algunos de los puntos recogidos en el convenio, que tras un complicado periodo de pandemia, poco a poco comienza a dar los primeros pasos.





# La historia rodea Zigoitia




Mojones en la muga Zigoitia y Vitoria-Gasteiz.




Parte del equipo de trabajo en la zona de la muga Zuia y Zigoitia.

'Mugarriak 1' es un estudio histórico-etnográfico de los mojones municipales y su toponimia asociada.
La delimitación territorial entre los municipios para tener claro hasta donde cada cual ejercía su administración y justicia es un recurso que desde hace muchos siglos han utilizado las comunidades, estableciendo pactos con sus vecinos mediante apeos y otros instrumentos para acabar deslindando físicamente cada territorio, bien mediante líneas naturales tales como arroyos o divisorias de aguas, o mediante la colocación de mojones de piedra u otros elementos más o menos permanentes en el tiempo.
'Mugarriak 1' se ha centrado en la búsqueda y conocimiento de los mojones históricos públicos que marcan la divisoria territorial de Zigoitia con los seis municipios colindantes (Zeanuri, Ubide, Legutio, Arratzua-Ubarrundia, Vitoria-Gasteiz y Zuia), así como de dos territorios históricos (Bizkaia y Araba). En total se han localizado 229 mojones tras recorrer caminando todo el perímetro municipal (50.201 metros), durante 24 jornadas realizadas entre marzo de 2020 y octubre de 2021.

*Horrela, egiaztatu da mugarri bakoitza zegokion lekuan ondo kokatua zegoela, izen adostu, ezagun eta denon artean onartutakoa, eta aldiro bisitatzen zutela berrikusteko. Mugarri hauek berebiziko garrantzia izan dute larreak, egurra edo ura ustiatzeko orduan, adibidez.*

La localización cartográfica ha sido una parte de este enriquecedor estudio del patrimonio histórico y cultural de Zigoitia, que ha profundizado en la investigación de la toponimia histórica. La fase del análisis documental de documentos de los siglos XV al XX se realizó mediante visitas presenciales en el Archivo Histórico de Protocolos de Álava, el Archivo Municipal de Zigoitia y el Archivo del Instituto Geográfico Nacional (IGN), además de consultar documentos digitalizados de otros archivos de los municipios colindantes como los de Zuia y Zeanuri. Incluso se visitó el archivo de la Diputación Foral de Bizkaia y de la Real Chancillería de Valladolid.
Esta labor se ha visto complementada con la búsqueda documental singularizada de esos nombres en apeos históricos, además de recurrir a informantes de cada uno de los pueblos de Zigoitia y municipios circundantes




Mugarri histórico en la muga Zigoitia y Zeanuri.

para recopilar información oral actualizada. Subrayar como se ha buscado la normalización lingüística, en casi todos los casos que se ha podido, según el criterio de Euskal Izendegi Geografikoa del Gobierno Vasco, y en otros casos de GeoEuskadi o GeoAraba.

*Artxibatze- eta transkripzio-lanek, dokumentazio-analisiek eta landa-lanek informazio ugari sortu dute, eta Zigoltiko mugarrien monografiko batean jaso ahal izango da. Gainera, dibulgazioari lotutako jarduerak ere aurreikusten dira, hala nola Zigoitiko gizarte-zentroan joan den otsailaren 24an egindako hitzaldia.*

El proyecto ha recibido la ayuda económica de la Fundación Vital Fundazioa y ha sido desarrollado por Abadelaueta Elkarte Etnografikoa, que ha contado con la colaboración de dos personas pertenecientes a la Sociedad de Ciencias Aranzadi, entre ellos Yoseba Alonso Arratibel, que ha dirigido el proyecto.

*ABADELAUETA ELKARTE ETNOGRAFIKOA*

# Impulso al proyecto de ‘Huertos Ecológicos Urbanos’

El Ayuntamiento de Zigoitia desarrollará a lo largo de estos meses nuevas acciones informativas con el objetivo de dar un impulso al número de personas/familias interesadas en formar parte del proyecto “Huertos Ecológicos Urbanos”, iniciativa de carácter local que fomenta la práctica de la horticultura ecológica y a su vez, favorece la concienciación y sensibilización sobre la importancia de la producción ecológica de alimentos de “Km 0”, tanto desde un punto de vista medioambiental como a nivel salud.

*Hiriko baratze ekologikoen ekimenaren bidez, udal-titulartasuneko landa-partzela bat egokitu nahi da, baratze txikietan banatuz eta interesdunei aldi baterako lagapen gisa eskaini ahal izateko. Udalak onartutako larrialdi klimatikoaren aurkako planean jasotako ekintza da.*

El objetivo de la difusión de esta iniciativa es llegar a un número mínimo de personas o familias interesadas en participar, que hagan que el proyecto sea viable. Hasta el momento hay varias personas que han trasladado su interés en participar, pero no resulta suficiente, considerando necesario llegar a un mínimo de 9-10 personas/familias para poder poner en marcha el proyecto.
El Ayuntamiento tiene previsto organizar una charla informativa a la que convocará a quienes hayan trasladado su interés en participar, abierta también a aquellas que quieran contar con más información.
El consistorio hace un llamamiento a participar en esta iniciativa a todas aquellas personas que tengan interés en la horticultura ecológica.

*Topaketa horretan, proiektuaren xehetasunak eta baldintzak azalduko dira (Ondategi eta Eribe lotzen dituen errepidearen ondoko lursaila hautatu da), eta aktibo dauden antzeko beste batzuen adibideak erakutsiko dira. Halaber, nobedadeen berri emango da ohiko beste bide batzuen bidez, hala nola udalaren web-orriaren eta sare sozialen bidez edo kartelen bidez.*

***Aquellas personas interesadas se deben poner en contacto con el personal técnico de medio ambiente del Ayuntamiento, enviando un correo electrónico a “ingurumena@gorbeialdea.eus”. Plazo de inscripción: hasta el 30 de noviembre.***



# Arabar Bola Jokoa, denboraldi garrantzitsu baten atarian



Arabar bola jokoa tradizioa da Zigoitin. Mendeetan zehar, jendea elkartzen, dibertitzen eta gizarteratzen duen ekitaldia bezala bizi izan da. Batez ere, igandeetan edota jai egunetan herrietako bizilagunek jokatu ohi zuten, elizatik atera ondoren, apustuak egiten edo besterik gabe denbora pasatzeko asmoz, mokadu bat hartu... Gaur egun antolatzen diren txapelketak fenomeno bikoitza direla esan daiteke, herri kultur tradizio bat dira oraindik ere, eta lurraldeko herrien arteko harremanari eusteko ere garrantzitsuak dira.

Pandemia heldu aurretik, 16-18 taldek parte hartzen zuten Zigoitiko Udal Txapelketan, urritik abendura luzatzen ohi dena. 2000 biztanle inguru biltzen dituen zonaldean, 170-180 parte-hartzaile biltzeak topaketa hauen arrakasta argi eta garbi islatzen du. "Araban zaletasun handia mantentzen da. Eta zorionez, belaunaldi berriak joko honetara hurbiltzen ari dira. Udal txapelketan 14 urtetik gorako gazteak lehiatzen dira, adibidez. Ahal dugun neurrian harrobi lana egiten dugu, 4 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat probak prestatuz, herrietako festetan ospatuz ...", aipatzen du Juan Carlos Gonzalez de Garibayk, S.D.C.R.

OKETA – ZIGOITIko kideak.

Bere ustez, gaur egun bola jokoa hain osasuntsu izatearen arrazoien artean garratzitsuena emakumearen gaineratzea izan daiteke. Hastapenetako urteetan gizonen jolasa izan bazen ere, "azken hamarkadetan gero eta emakume gehiago animatzen joan dira. Goreneko mailan taldeak 10 kidez osatuak daude eta mixtoak dira, baina emakumeentzako berezko Talde Txapelketa ospatzen dugu, baita Bakankakoa ere. Eta harrobi lanari bultzada eman diote ere. Asko seme-alabekin datoz, hauek jolasa eurena egiten dute eta, pixkanaka, txapelketetan parte hartzera animatzen doaz. Saiatu behar gara gaztetxo horiek lotzen, tradizioa mantendu dezaten", azaltzen du Juan Carlosek, jokuan urteak daramatzan jokalariak.

Laster udal txapelketa prestatzeko bilerak hasiko dira. "Ea pandemiaren ondoren erantzuna nolakoa den. Garai hauetan ez da erraza izan. Horrexegatik denboraldi berri hau garrantzitsua da, ea pandemia aurreko zenbakietara itzultzen garen", adierazten du.

Jokoaren loraldi garaian Araban bolatokiak ezagunak bihurtu ziren. "Bolatoki dexente ditugu zonaldean, ondo zainduak. Bederatzi oso aktibo daude", baieztatzen du.

Udal Txapelketan askok hartzen dute parte, baina Herriarteko Txapelketan ez dira hainbeste animatzen. "Alde batetik, bidaiak luzeagoak dira. Eta bestetik, txapelketa urtarrila-otsailatik ekainera hedatzen da. Askori luze egiten zaie eta ez dute konpromezu hori hartu nahi. Denbora tarte horretan ere Federazio Txapelketa garatzen da... Eta azkenik, udal txapelketan parte hartzeko herrian bizi edo erroldatuta egon behar duzu, horrekin balio du. Herrien artekoan jokatzeko lizentzia atera behar duzu", aitortzen du bata eta bestaren arteko deialdi arrakasta arrazoitzeko.

"Txapelketak amaitzen direnean bazkaria antolatzen dugu, egun hori ederra da. Zigoitiko Udalak lehentasuna ematen dio tokiko txapelketari. Garaikurrak ordaintzen ditu, adibidez. Herriarteko Txapelketari begira ez dugu diru-laguntzarik eta babesleak bilatzen ari gara. Kamisetak ordaintzea, adibidez, eskertuko genuke. Noizean behin komunikabideetan ateratzen gara. Badakigu kirol minoritarioa garela, baina nolabaiteko eragina dugu. Ea lortzen dugun...", azpimarratzen du Juan Carlosek.

# "El arranque de este curso lo hacemos con gran ilusión, muchos planes y energía"

MAIRU ABESBATZA



*26 koralistek osatzen dute Mairu Abesbatza eta, horietako asko, 2008tik daude taldean, abesbatza sortu zenetik. Pandemia atzean geratzen ari da, eta abesbatzak bere jarduera nekaezinarekin jarraitzen du. Batzarrak musika-elkartearen gaurkotasuna xehatzen du.*

**¿Qué tipo de alternativas se tomaron en unos meses con tantas dificultades para seguir adelante con la actividad?**
El realizar ensayos y conciertos virtuales, mantener un contacto permanente y ser pacientes en el canto con mascarillas nos permitió que la vuelta plena a la actividad haya sido mejor de lo esperable.
Al igual que en el deporte, el canto requiere entrenamiento continuo, para no perder la forma.
*Gure zuzendariak, Aliona Makeevak, ez digu adoregabetzen utzi, eta lan bikoitza egin du eguneroko dinamika gal ez dezagun. Beharra bertute bihurtu zuen eta ezbeharren aurrean temati jokatzen lagundu zigun.*

**Tras vivir un periodo tan complejo, ¿Mairu Abesbatza sale reforzada? Mantienen una agenda de conciertos muy rica.**
El arranque de este curso lo hacemos con gran ilusión, muchos planes y energía. Acabamos de participar en el programa de fiestas de la Cendea de Berrioplano.
Berrioplano tiene algún parecido a Zigoitia, con pequeños pueblos.
Hemos organizado un taller de fin de semana de música cubana para el 5/6 de noviembre con un excelente director santiagueño, Enrique Filiu.
Queremos aprender ritmo, disfrutar con un repertorio con mucho sabor y color. Es un taller abierto a personas de fuera del coro.
Para inscripciones e información, pedimos nos envíen un mensaje al correo mairuabesbatza@gmail.com
*Bat dator hilaren 5ean maila handiko Magerit abesbatza madrildarrak bisitatuko gaituela eta kontzertua partekatuko dugula 19:30etan Gasteizko Santa Klara elizan. Luxua Mairurentzat bere teloneroak izatea.*
*Gabonetan kontzertu berezia izango da Arabako beste abesbatza batzuekin, ziur aski Aramaion (oraindik datarik gabe).*

**A los asistentes a los conciertos nos provoca una gran emoción escucharles. Pero, ¿qué les aporta a ustedes pertenecer a la coral? ¿Cómo sienten y viven un concierto?**
La actividad musical, en general, enriquece a la persona. La música coral amateur nos permite a personas sin grandes voces disfrutar más del canto, porque nos apoyamos unos a otros. En solitario progresar es difícil, en grupo muy agradecido.
Incluso a nivel salud, saber acompasar canto y respiración con respiraciones más profundas y prolongadas es un magnífico método para oxigenar el cuerpo.
*Kontzertuetan ahalik eta gehien kontzentratzen gara. Lehen txaloak eta ikusleen aurpegien erreakzioa entzun ondoren, konexio eder bat sortzen da, azken txalo zaparradaraino doana. Bertaratuek oparitzen diguten sari xume bat.*

**Ahots berriak erakartzeko eta berrikuntza bultzatzeko programatutako jarduerarik?**
Siempre estamos abiertos a nuevos compañeros y compañeras.
Ensayamos las tardes de los lunes de 6 a 8 (semanas alternas) y los jueves de 7 a 9. Basta con mandar un mensaje al correo y rápidamente contestamos.

**Laster 15. urteurrena ospatuko duzue...**
*Datorren urtean Mairu Abesbatzak 15 urte beteko ditu eta ekitaldi bereziekin ospatu nahi dugu. Ezin dugu ezer aurreratu, baina sorpresa asko ditugu.*
Sobre todo queremos celebrarlo con nuestros fieles seguidores de Zigoitia, que siempre llenan nuestros conciertos y cuyo apoyo es esencial. Nos sentimos queridos y pretendemos que ellos también sientan nuestro agradecimiento.

## Intereseko informazioa Información de interés

**UDALETXEA**
**AYUNTAMIENTO**
945 464 041
zigoitia@zigoitia.eus

**GIZARTE LANGILEA**
**TRABAJADORA SOCIAL**
945 464 341

**ZIGOITIKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA**
**CENTRO RURAL DE ATENCION DIURNA DE ZIGOITIA**
945 464 310
crad@zigoitia.eus

**ZIGOITIKO GIZARTE ETA KULTUR ZENTROA**
**CENTRO SOCIOCULTURAL DE ZIGOITIA**
945 464 400
kulturtegia@zigoitia.eus

**ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA**
**CONSORCIO DE AGUAS DE ZIGOITIA**
945 464 300
consorciodeaguas@zigoitia.eus

**ZIGOITIKO HAURRESKOLA GORBEIA**
**ESCUELA INFANTIL GORBEIA DE ZIGOITIA**
945 464 488
gorbeia.zigoitia@haurreskolak.net

**HLHZ GORBEIA ESKOLA**
**CEIP GORBEIA ESKOLA**
945 464 257
010350aa@hezkuntza.net

**ZIGOITIKO BAKE-EPAITEGIA**
**JUZGADO DE PAZ DE ZIGOITIA**
945 464 410

**ZIGOITIKO OSASUN ZENTROA**
**CENTRO DE SALUD DE ZIGOITIA**
945 464 043
csgopegi@osakidetza.net

**BOTIKA**
**FARMACIA**
945 460 825

ZIGOITIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

**www.zigoitia.eus**

## KULTUR AGENDA CULTURAL

### ZIGOITIKO GIZARTE ETA KULTUR ZENTROAN - EN EL CENTRO SOCIOCULTURAL DE ZIGOITIA

### URRIA / OCTUBRE
### Giza Eskubideak Eszenara / Derechos Humanos a Escena

**Urriak 8 de octubre (19:00 h):**
Gure kanoa. Txotxongilo antzerkia eta itzalen antzerkia (Zurrunka Teatro).

**Urriak 15 de octubre (18:00 h):**
Itzal titere laborategia. Tailerra (Zurrunka Teatro).

**Urriak 22 de octubre (17:00 h):**
"Derechos Humanos a Escena". Solasaldia - Encuentro tertulia.

**Urriak 22 de octubre (19:00 h):**
Aporofobia STOP. Antzezpena - Representación (Ados Teatroa).

**Urriak 29 de octubre (18:00 h):**
Zapalduaren Antzerkia / Teatro de la Oprimida. Tailer monografikoa - Taller monográfico (Eider Sanz de la Maza).

### AZAROA / NOVIEMBRE
### Kontatzen duten Emakumeak / Mujeres que Cuentan

**Azaroak 5 de noviembre (18:00 h, 19:00 h, 20:00 h):**
Benditas. Lekua zehazteke - Espacio por determinar (El mono habitado).

**Azaroak 12 de noviembre (19:00 h):**
Sekretu aldarrikatuak / Secretos a voces. Euskarazko ahozko narrazioa (Itziar Rekalde).

**Azaroak 19 de noviembre (19:00 h):**
Mi 3er acto. Antzerki garaikideko pieza - Pieza de teatro contemporáneo (Eguzki Zubia).

**Azaroak 26 de noviembre (12:00 h):**
Dantza gaitezen elkarrekin / Compartamos danza. Tailerra - Taller (Nerea Martínez / Natalia G. Muro).

**Azaroak 26 de noviembre (19:00 h):**
Besarkada. Dantza emanaldia - Obra de danza (Nerea Martínez).

### ABEDUA / DICIEMBRE

**Abenduak 10 de diciembre (19:00 h):**
Landatzen zituen gizonak. Antzerki lana - Obra de teatro (Teatro Gorakada).

**Abenduak 17 de diciembre (17:00 h):**
Mari Domingi eta Olentzeroren bila. Familia tailerra (Eva Alonso).

**Abenduak 24 de diciembre (18:00 h):**
Negu Jaia. Solsticio de Invierno. Herri topaketa - Encuentro comunitario (Dominizubi Musika Eskola, Oketa Alai Dantza, Hitagu).
Para preparar esta celebración se propone el taller para familias e infancia.

### LABORATORIO TEATRAL HITAGU

Curso de formación regular **Laboratorio Teatral Hitagu para personas jóvenes y adultas. El plazo de inscripción ya está abierto** hasta el final de la primera semana de octubre. Se dará cita en el teatro del Centro Socio-cultural de Zigoitia, donde hay que llamar para reservar plaza (945 464 400).

